

**CATÁLOGO DEL PAISAJE.
AREA FUNCIONAL DE
ÁLAVA CENTRAL**

**PAISAIAREN KATALOGOA.
ARABA ERDIALDEKO
EREMU FUNTZIONALA**



AURKEZPENA

PAISAIAREN KATALOGOA. ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALA

Espedientearen kodea: 035SV/2019

2020ko abenduan berrikusia

LANEN ZUZENDARITZA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Jesús María Erquicia Olaciregui

Lurralde Antolamendu eta Plangintzarako Zerbitzuaren arduraduna

Rafael Sánchez Guerras

Arabako Lurralde Antolamenduko arduraduna

Victoria Azpiroz Zabala

Lurralde Antolamenduko arkitektoa

LAGUNTZA TEKNIKOA



Raquel López Hernández eta Pablo Sánchez Ramos

Koordinatzaileak

AURKIBIDEA

1	AURREKARIAK	7
2	AZTERLANAREN LURRALDE-ESPARRUA	8
3	KATALOGOAREN GARAPENA	9
3.1	1. ETAPA. PAISAIAREN ANALISIA ETA DIAGNOSIA	9
3.1.1	1A ETAPA: EREMU FUNTZIONALAREN EZAUGARRITZEA	9
	PAISAIAREN SEKUENTZIA EBOLUTIBOAREN AZTERKETA	10
3.1.2	1B ETAPA: PAISAIA-UNITATEEN (PU) ETA PAISAIA INTERES BEREZIKO EREMUEN (PIBE) IDENTIFIKAZIOA, EBALUAZIOA ETA DIAGNOSIA	10
3.2	2. ETAPA. PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK, NEURRIAK ETA ADIERAZLEAK	11
4	PAISAIAREN KATALOGOAREN ANTOLAMENDUA ETA EGITURA	12

1 AURREKARIAK

Euskal Autonomia Erkidegoa Paisaiaren Europako Hitzarmenera formalki atxikitzeko akordioan, EAEko Gobernu Kontseiluak 2009ko uztailean hartutakoa, paisaia honela definitzen da: “(...) *ongizate indibidual eta sozialaren eta populazioaren bizi-kalitatearen oinarritzko elementua. Gizakien gozamenari laguntzen dio, baita lurralde identitatearen sendotzeari ere. Interes orokorrean era garrantzitsuan parte hartzen du, kultura, ekologia, ingurumena eta gizarte-arloa oinarri hartuta, eta jarduera ekonomikorako baliabide lagungarria da.*”

Paisaiaren Europako Hitzarmenaren Hitzaurreak paisaia lurralde guztietako populazioen bizi-kalitatearen elementu garrantzitsu gisa onartzea azpimarratzen du, hiri-eremuak edo landa-eremuak izan, eremu degradatuak edo kalitate handikoak izan, aparteko edertasuna duten lekuak izan edo erabat egunerokoak izan. Paisaia, beraz, lurraldearen oinarritzko alderdia da, eta ondorioz, elementu giltzarria lurraldea antolatzeke eta biztanleentzako. Horren haritik, parte-hartzeke prozeduren ezarpena ziurtatzen da, aipatutako hitzarmenaren 5. artikuluko c) atalean jasotakoarekin bat.

Bestalde, ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren bitartez, EAEko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzea arautua dago (2014ko ekainaren 16ko EHAA-an argitaratua). Dekretuaren bidez, esparru arauemailea eta tresna normalizatuak ezartzen dira paisaia lurraldearen antolamenduan txertatzeko. Testuinguru horretan, eragileen eta herritar interesdunen parte-hartzeak garrantzi berezia dauka.

Azaldutako guztiarekin bat, Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Saileko Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzak Araba Erdialdeko paisaiaren Katalogoaren elaborazioa sustatu du. Katalogoa prestatzeko laguntza teknikoa Simatec Medio Ambiente S.L. enpresaren kargura doa, kontratuaren adjudikazioduna izan baita.

Helburua da paisaia ezberdinak kudeatzea ahalbidetzen duen tresna bat sortzea, betiere bat etorrita, batetik, Paisaiaren Europako Hitzarmenarekin, eta bestetik, EAEko lurralde antolamenduan, paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko Dekretuarekin (90/2014 Dekretua).

Xede nagusia da behar bezalako tresna izatea lurralde kudeatzaileek aintzat hartu dezaten eta bere pisua eman diezaioten, euskal gizarteak eskatu duenarekin bat, *Euskadiko Lurralde Foroaren* ondorioek ezarritakoarekin bat. Zehaztasun maila handia lortu da, erabilgarria eta arina izateko, eta aipatu kudeatzaileei lurraldea planifikatzen, antolatzen eta kudeatzen laguntzeko.

2 AZTERLANAREN LURRALDE-ESPARRUA

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionala geografia-esparru bat da eta Euskal Autonomia Erkidegoaren erditik hegoaldera dago kokatua, Arabako Lurralde Historikoan (1. irudia). 2.330 km² inguru ditu luze-zabaleran, eta oso espazio ezberdinak barnebiltzen ditu, hala nola Arabako Lautada eta Arabako Mendialdea. Mugakidea da Nafarroarekin, Errioxarekin eta Burgosko iparraldearekin; eragin handia du azken eremu horrekin. Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera (LAG), Araba Erdialdeko Eremu Funtzionala Arabako 32 udalerrikin eta Bizkaiko 2k osatzen dute.



3 KATALOGOAREN GARAPENA

Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko paisaiaren Katalogoak deskribapen, analisi eta prospekzioarako kapitulu multzo bat barnebildu du, eta hainbat helburu ditu, hala nola lurraldeko eremuetan zer-nolako paisaiak dauden identifikatzea, paisaien ezaugarriak aztertzea, zer indarrek eta presiok eraldatzen dituzten jakitea, zer balio dituzten eta zer-nolako kontserbazio egoera identifikatzea, eta bete behar dituzten paisaiaren kalitateko helburuak proposatzea.

Paisaiaren Katalogoa elkarren segidako etapetan prestatu da, eta guztiak ere aldi berean, era paraleloan, garatu dira. Lehen zatiak (1. Etapa) paisaiaren identifikazioa eta ezaugarritzea izan ditu ardatz, eta paisaia-unitateak identifikatu, zedarritu eta baloratzen dira. Katalogoaren bigarren zatian (2. Etapa) paisaiaren kalitateko helburuak zehazten dira unitate bakoitzeko, bai eta neurriak eta adierazleak ere. Bigarren etapan, halaber, Paisaia Interes Bereziko Eremuak identifikatzen dira, hau da, helburuetan nahiz neurrietan arreta berezia behar duten lurraldeko eremuak.

Lehen Etapan, gainera, landa-lana aurreikusia dago, beharrezkoa baita, eta aldi berean, kabinete-lana egiten da ezaugarritze, identifikazio, ebaluazio eta diagnosi faseetan.

1A Etapan (Eremu Funtzionala Ezaugarritzea) ezaugarritze lana egiten da, 1B Etapara bideratua eta zuzendua, hau da, paisaia-unitateen (PU) eta Paisaia Interes Bereziko Eremuen (PIBE) identifikazio, ebaluazio eta diagnosira. Garapena 2. Etapan burutzen da. Bertan, kudeaketa-eredua proposatzen da, eta beharrezkoak diren paisaiaren kalitateko helburuak, neurriak eta adierazleak adierazten dira PUrako, PIBErako, bai eta beste osagai eta elementu batzuetarako ere.

Nabarmendu behar da Katalogoaren garapenean kontuan hartu direla euskal administrazioek azken hamarkadetan paisaiaren ezagutzarako prestatu dituzten kartografia eta txosten ugariak, eta era berean, hainbat arlotako araudiek, planek eta estrategiek sortutako esparrua paisaiari dagokionez, hala nola lurraldearen antolamenduan, ingurumenaren babesean, naturaren kontserbazioan, landa-garapenean edota garapen jasangarrian. Horrenbestez, helburuak eta proposamenak zuzenean bat datoz haiekin guztiekin.

Azkenik, hona hemen herritarren parte-hartzeari buruzko azalpena. Eragileen eta herritar interesdunen parte-hartzea zutabeetako bat izan da Katalogoaren garapena diseinatzerakoan. Parte-hartze prozesuari esker, herritarrak paisaiaren kudeaketan engaiatzen dira eta, aldi berean, administrazioari aukera ematen zaio herritarrengana are gehiago hurbiltzeko, haien premia eta espektatibak egokiro asetzea bermatzeko formula gisa. Ereditu Funtzionalaren paisaiari ematen zaizkion balioak hainbat begiradaren bidez identifikatzea izan da xede nagusia eta, era berean, kalitateko helburuen gaineko diagnosi partekatu bat egitea. Horrela, 1B etapatik planteatua, hasiera hartan COVID 19aren mundu-pandemia gertatu zen, eta horrek errotik eragotzi zuen lanaren garapena; nagusiki, 2020ko martxo, apiril eta maiatzeko konfinamendu neurrien ondorioz. Gauzak horrela, kronogramarekin bat -ohikoa baita horrelako azterlan teknikoetan-, beste prozesu batzuetako emaitzak kontuan hartuta egin zen aurrera garapenean; batez ere, Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialaren atariko azterlanetan izaniko emaitzak hartu ziren kontuan.

3.1 1. ETAPA. PAISAIAREN ANALISIA ETA DIAGNOSIA

3.1.1 1A ETAPA: EREMU FUNTZIONALAREN EZAUGARRITZEA

PAISAIAREN GAKOAK: IDENTIFIKAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA

Paisaia osatzen duten lurralde-faktoreak eta osagai nahiz elementu naturalak, kulturalak eta bisualak identifikatzen dira, bai eta paisaia ere definitzen duten pertzepziozko elementuak eta elementu sinbolikoak ere.

*Paisaiaren gako*en analisiak paisaia-unitateen eta Paisaia Interes Bereziko Eremuen identifikazioari ekitea ahalbidetzen du.

PAISAIAREN SEKUENTZIA EBOLUTIBOAREN AZTERKETA

Paisaia gizakiaren eta haren ingurumenaren arteko harremanen adierazpen espaziala da, hots, lurralde bat osatzen duten faktore fisikoen (geologia eta klima, fisiografia, lurzorua eta ura) eta faktore biotikoen (landaredia eta fauna) emaitza da. Faktoreek gizarteekiko, gizarteen historiarekiko eta haien teknologiarekiko duten elkarren arteko loturari erantzuten dio paisaiaren egungo egiturak. Paisaia gaur egunera arte nola eratu den aztertzeak hainbat helburu ditu. Batetik, tresna bat da paisaia-unitateen mugen proposamena egiteko orduan, eta informazioa ematen du unitate horiek denboran zehar izaniko egonkortasun posibleari buruz. Bestetik, egungo paisaia zehaztu duten prozesu dinamikoak diagnostikatzeko beharrezkoa da paisaiaren etorkizuneko bilakaera posiblea aurreikusten saiatzeko, bere kontserbaziorako, eta informazio horrek interes berezia dauka paisaia kontserbatu, kudeatu eta antolatzeke proposamenak egite aldera.

3.1.2 1B ETAPA: PAISAIA-UNITATEEN (PU) ETA PAISAIA INTERES BEREZIKO EREMUEN (PIBE) IDENTIFIKAZIOA, EBALUAZIOA ETA DIAGNOSIA

PAISAIA-UNITATEEN IDENTIFIKAZIOA

Haien mugaketa egiteko aukeratu den metodologiaren arabera, paisaia-unitateak (PU) lurraldea banatzeko eremuak dira, eta haietako bakoitzak berariazko paisaia-osagaiak ditu ezaugarri, ingurumenari, estetikari eta kulturari dagokienez, eta argi hautematen diren dinamikei daude lotuta; gainera, dinamika horiek halako identitate bereizgarri bat ematen diete, lurraldearen gainerako unitateena ez bezalakoa, eta paisaia homogeen gisa hautematen dira.

PAISAIAREN EBALUAZIOA: BALIOEN ETA ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA

Ingurumen-baliabideen ebaluazioa nahitaez egin behar da hasieran paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari begira. Horren haritik, ebaluazioa funtsezkoa da paisaia-unitateen ezaugarritzea egiterakoan, hainbat arrazoi direla medio: paisaiaren kalitateko helburuak ezarriko badira, paisaiaren ezaugarriak eta egoera ezagutu beharko dira. Era berean, paisaia kontserbatu, hobetu eta antolatzeke proposamenak egingo badira, lurraldearen balorazio ezberdina ezagutu beharra dago, paisaiaren bilakaera prebentzioan eta zuzenketan oinarriturik gidatze aldera.

PAISAIA INTERES BEREZIKO EREMUAK

Paisaia gidatzeko sortuko diren tresnak osatzen dituzten figura paisajistikoak Paisaia Interes Bereziko Eremuak (PIBE) dira. Honela daude definituta: *heterogeneotasun edo konplexutasun jakin bat duten lurralde zatiak dira; horrenbestez, berariazko zehaztapenak edo proposamenak behar dituzte babesteko, antolatzeke edo kudeatzeko, honako irizpide hauetakoren baten menpean daudelako: berezitasuna, paisaia bakan edo mehatxatuaren tipologia, hauskortasuna, degradazio edo hondamen berezia, biztanleriarentzat oso agerian egotea, balio identitarioa eta/edo pertzepzio- eta estetika-ezaugarri bikainak dituztelako.*

PIBEek paisaia-esanahi bereziko elementuak eta guneak barnebiltzen dituzte, dela paisaiaren balioa nabarmen aldatzen dutelako, hautematen diren lekutik, dela paisaia-hauskortasun handia dutelako. Beraz, eremu horiek arreta berezia behar dute, eta hori aintzat hartzen da haien analisi egin ondoren paisaiaren identifikazioa eta ezaugarritzea egiteko garapen teknikoan, eta behin parte-hartze publikorako prozesua egindakoan. Eremu horietako ezaugarri batzuek zehaztapenen edo berariazko ekintzen beharrean egon daitezke, babesteko, antolatzeke edo kudeatzeko. EAEko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeke 90/2014 Dekretuaren 4. artikulua ezarritakoarekin bat, PIBEn identifikazioa honako irizpide baten edo batzuen arabera egiten da:

- 1) Paisaia ezohiko edo mehatxatu gisa duen berezitasun, hauskortasun edo adierazgarritasunagatik.
- 2) Eremuaren narriaduragatik: bereziki, hirien periferiako lurraldeak, hiri eta landa arteko trantsiziokoak, ibaiertzetakoak edo industria-eremuak.
- 3) Biztanleriarentzat oso agerian dauden eremuak izateagatik.
- 4) Eremu funtzionalaren identitatea eratzeko erabakigarria izateagatik.
- 5) Pertzepzio- eta estetika-ezaugarri bikainak edukitzeagatik, naturaren osagaiek edo giza osagaiek elkarri eragiten dioten modu bereziaren ondorioz

3.2 2. ETAPA. PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK, NEURRIAK ETA ADIERAZLEAK

Herritarren xedeen gauzapena da, beren inguruneke paisaiaren ezaugarriei dagokienez, betiere haren egoera, arriskuak eta balioa ezagutu eta gero, hala lurralde-esparruan nola paisaia-unitatearen esparruan.

PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

Paisaiaren Europako Hitzarmenaren (Florentzia 2000) arabera, hauxe da “paisaiaren kalitateko helburua” berariazko paisaia baterako: agintari publiko eskudunek herritarren xedeak formulatzea haien inguruko paisaiaren ezaugarriei dagokienez.

Paisaiaren kalitateko helburuen formulazioak helburu du paisaiaren kontserbazio, kudeaketa eta antolamendu arloko politikak zuzendu beharko lituzketen printzipioak ezartzea, printzipio horiek herritarren inguruko paisaiaren ezaugarriak gidatuko baitituzte. Printzipio horiek, oro har, gizartearen helburuak bildu eta txertatu beharko lituzkete eta paisaian parte hartzen duten eragile guztiak kontuan hartuz formulatu beharko lirake.

Horrenbestez, printzipioen formulazioak paisaiaren baliabidea lurralde antolamenduan txertatzea du helburu, horixe baita eremu funtzional bakoitzeko paisaiak zaintzen eta hobetzen laguntzeko tresnarik ahaltsuena, garapen jasangarriarekin bat.

Baliabide hori herritarren ongizate eta bizi-kalitatearen funtsezko elementua izanik, aldi berean beste baliabide batzuk barnebiltzen dituen, paisaiaren kalitateko helburuak *abiapuntu bikaina izaten ahalko dira ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko helburu berriak ezartzeko, lurralde zehatz bateko herritarrentzat.*

NEURRIEN, BEHARREZKOAK DIREN EKINTZEN ETA ADIERAZLEEN PROPOSAMENA

Paisaiaren kalitateko helburuak lurralde antolamenduan dagozkion araudien bitartez txertatzeko xedez, paisaiaren kalitateko helburuak lortzeko neurrien eta beharrezkoak diren ekintzen proposamen bat egiten da, betiere honako printzipioei jarraikiz:

- Harreman garbia izatea paisaiaren kalitateko helburuen, eta neurrien eta proposamenen artean.
- Proposaturiko neurriak bat datoz paisaia-unitate bakoitzarekin eta Paisaia Interes Berezikoko Eremuekin.
- Neurriak eta jarduketa-proposamenak lurralde-politikei, hirigintza-politikei eta sektorialeki zuzendurik daude.

Paisaia-politiken jarraipen eta ebaluazio etengabea garapen jasangarriko printzipioen arabera egite aldera, hainbat paisaia-adierazle identifikatzen dira, paisaia eta haren bilakaera paisaiaren kalitateko helburuekiko ebaluatzeko.

4 PAISAIAREN KATALOGOAREN ANTOLAMENDUA ETA EGITURA

Faktore asko hartu behar dira kontuan 90/2014 Dekretuak emaniko agindua betetzeko, plangintza egituratzailearen eta udal edo sektorekako plangintzaren arteko topagunea gauzatu dadin.

Plangintza arloko erabakiek irizpide anitzeko ebaluazioa behar dute, aintzat hartzeko bai plangintzaren garapenean eragina duten alderdi guztiak, bai plangintzak berak ukitzen dituen aspektuak. Batetik, paisaia funtsezkoa da erabilerak esleitzeko erabakiak hartze aldera, non baliabide hori erabakigarria baita bere garapena gutxi-asko erakargarria izan dadin: babes proposamenak, turismorako eta aisiarako guneen aukeraketa, eta hobetu beharreko guneen aukeraketa edo paisaia berriak sortzea. Bestetik, bestelako faktoreak aintzat hartzea beharrezkoa bada ere jarduera gehien plangintza-ereduetan –sozioekonomikoak, teknikoak eta ekologikoak batez ere–, paisaia zeharkakotasunezko faktore gisa sartu beharko litzateke erabilerak esleitzean edota jarduketa jakin batzuk garatzeko eremuak proposatzean. Hori dela eta, lurralde-plangintza eta -antolamenduaren tresnek barnebiltzen dituzten faktore guztien xehetasun-plano berean gauzatu dira identifikazioa, ezaugarritzea eta balorazioa; bereziki, hirigintza planeamenduari dagozkionak, baina era berean, paisaian isla duten politika sektorial guztietan. Xede horretarako, Paisaiaren Katalogoa paisaia kudeatzeko unitateen bitartez dago egituratua, lurraldea hurbiltze-eskala ezberdinen arabera sailkatu izanaren ondorioz sortutakoak. Batetik, *paisaia-unitateak* eta *paisaia interes bereziko eremuak (PIBE)*. Kudeaketa unitate bakoitzak berariazko tratamendu bat dauka paisaia planifikatu eta kudeatzeko.

Paisaiaren Katalogoa Dokumentu hauetan dago antolatua:

- AURKEZPEN AGIRIA.
- 1. AGIRIA. EREMU FUNTZIONALEKO PAISAIAREN EZAUGARRITZEA ETA EBALUAZIOA. PAISAIAREN KATALOGOAREN GARAPENEAN AZTERTURIKO GAKOAK ETA ALDERDIAK.
- 2. AGIRIA. PAISAIAREN UNITATEAK. Paisaia-unitateak paisaia eremu homogeneousak dira eta haietan faktore batzuk gertatzen dira aldi berean. Faktore horien garrantzia analisi-eskalaren arabera da, bai eta aztertutako lurralde motaren arabera ere. Paisaia-unitateak kontuan hartu beharreko lurraldeak dira paisaiaren kudeaketa integralerako, administrazio-mugak alde batera utzita. Behin unitateak identifikatuta, ezaugarrituta eta ebaluatuta, kontserbazio, hobekuntza edo zabalkunde ekintzak dakartzate, kontuan hartu beharrekoak antolamendu arloko tresnetan txertatzeko; bereziki Plan Partzialean, baina udal edo sektore arloko beste batzuetan ere bai. Beraz, haien identifikazioa eta kartografia egitea alderdirik konprometigarriena da, zeren, haien zedarripenak figura juridikoak erakar ditzake antolamendurako tresna gisa, lurraldea kontserbatu, hobetu edo kudeatzeko neurriak hartze aldera.
- 3. AGIRIA. PAISAIA INTERES BEREZIKO EREMUAK. Paisaia-unitateak paisaia kudeatzeko unitateak dira, eta paisaiaren hurbiltze integralerako daude pentsatuta, hainbat eskalatatik abiatuta. Unitateek irizpideak eragiten dituzte, paisaia era zabalean eta ez-murritztailean babesteko. Hala ere, paisaia-unitate bateko elementu, osagai edo zatien kokapen zehatz batzuek garrantzi handia dute paisaiari begira, eta nabarmendu beharreko garrantzi adierazgarri batekin hautematen dira, zeren, paisaia horrek dituen ezaugarriak, bai eta paisaiaren pertzepzio eta ikusgaitasunarekin, hauskortasunarekin edo kontu identitarioekin lotutako alderdiek ere, berezko nortasuna ematen baitiete izaera bereko gainerako guneen aldean, kokaturik dauden inguruan. *Paisaia Interes Bereziko Eremuak* dira.
- 4. AGIRIA. PAISAIAREN PLANGINTZA, KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUA. PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK, NEURRIAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK. Paisaiaren Katalogoak tresna tekniko moldagarri eta eraginkorra izan nahi du; horretan saiatzen da. Hori dela eta, Paisaia Kudeatzeko Unitateetan dago egituratua eta, horiei esker, Katalogoa kudeaketa-tresna guztietan txerta daiteke, fitxen bidez txertatu ere, haietako bakoitzerako proposatu den kudeaketa-eredua adierazteko. Fitxek tresna multzo bat osatzen dute kudeaketa eta antolamendua errazte aldera, betiere egungo erabileren eta etorkizuneko garapenak edo

aldaketak egokiro txertatuz; aldaketak, dela nekazaritza erabileretarantz, dela erabilera eraikietarantz, dela paisaia naturala lehengoratzeko.

- KARTOGRAFIA MAPAK ETA GEODATUAK
 - 1. Mapa: Paisaia Unitateak.
 - 2.1 Mapa: Paisaiaren kalitateko helburuak I.
 - 2.2 Mapa: Paisaiaren kalitateko helburuak II.
 - 3 Mapa: Paisaia Interes Bereziko Eremuak.
- ERANSKINA¹:
 - DIBULGAZIOZKO LABURPENA
 - 1. ERANSKINA: APLIKATUTAKO METODOLOGIAK
 - 2. ERANSKINA: ARGAZKI ERREPORTAJEA

¹ Itzulpenik gabe.